

Brittany Howard (Alabama Shakes), Glen Hansard, Róisín Murphy eta GAUA espazioko programazioa baieztatuta daude jada BIME LIVEn

Phantogram duoak, **Omago** euskaldunek eta **GAUA**ko programazio elektronikoa (Helena Hauff, Park Hye Jin, Pional, Daphn (Dan Snaith de Caribou), Cooper Saver eta Pearson Sound) osatzen dute hirugarren aurrerapen hau

Jada eskuragarri daude egunez eguneko programazioa eta sarrerak

BIME LIVEk, Espainiako udazkeneko jaialdi garrantzitsuenak, izenak batzen jarraitzen du **azaroaren 1ean eta 2an BEC! Bilbaon** egingo den zazpigarren ediziorako. **Glen Hansard** abeslari, konpositore eta gitarrista irlandarra, 2007an abesti onenaren Oskar saria irabazi zuena; lehen aldiz izango dugu **BIME LIVE**n eta bere azken lana aurkeztuko du: 'This Wild Willing', esperimentazioari oda bat, folkaren eremuan kokatua baina ekialdeko elementuak dituena. Harekin batera izango da **Brittany Howard** Alabama Shakes-eko abeslari eta liderra, eta bere azken lana aurkeztuko du, 'Jamie' izenekoa; funk eta soul kutsuak dituen disko hau bakarlari gisa argitaratzen duen lehena da, eta minbiziak jota hil zen bere ahizpari eskaini dio.

Róisín Murphy diva anglo-irlandarra ere BEC!-en izango da, bere pop abangoardista, elektroniko eta eszentrikoarekin; Moloko taldeko abeslari ohiak labetik atera berria du bere azken singlea, 'Incapable' izenekoa, eta geldialdi bat egingo du Bilbon, Europan zehar egiten ari den biraren baitan.

BIME LIVEn izango dira ere Josh Carter eta Sarah Barthel (**Phantogram**), beren rock elektronikoa ilun eta dream poparekin ('Into Happiness' izeneko azken singlea dakarte besapean), eta pop-rock esentzia duen **Omago** euskal talde gaztea, Bizkaiko Aldundiak antolatutako Soinu Berriak lehiaketa irabazi duena.

Aurten ere, doinu dantzagarri eta sendoenak maite dituztenek paradisu txiki bat aurkituko dute **Gaua** espazioan. Doinu elektronikoei dagokienez, BIME LIVEn izango dira **Helena Hauffen** techno gordin eta berriketa gutxikoa, **Daphniren**-aka Caribou- set eklektikoak, **Pearson Sound** britainiarraren balioaniztasuna, eta **Pional** madrildarraren housea pop eraginekin.

Eta amaitzeko, **Cooper Saver** Dublab-eko esataria, eragiketa gunea Los Ángelesen duena eta ESP Institute edo Permanent Vacation zigiluekin sinatzeko gai izan dena, eta **Park Hye Jin** hego-korearraren house bokal eta erreboluzio baxukoa ere jaialdian izango dira, GAUAko honetako programazioa osatzen.

Gainera, **BIME LIVE**k egunez eguneko kartela ere aurkeztu du: **Kraftwerk 3D**, **Amaia** edo **Glen Hansard** izango ditugu ostiral gauean, eta **Jamiroquai**, **Brittany Howard**, **Róisín Murphy** edo **The Divine Comedy** larunbat gauean.

Oraindik Goxo agertokiko egitaraua eta zenbait artista egiaztatu gabe dauden arren, eguneko sarrerak salgai daude jada 50 euroan (+ gastuak).

BIME 2019

BIME LIVE

2019ko azaroak 1 eta 2

BEC! Bilbao

Egunez eguneko kartela

Ostirala, azaroak 1

- KRAFTWERK 3D
- AMAIA
- GLEN HANSARD
- MORGAN
- PHANTOGRAM
- AITOR ETXEBARRIA
- DO NOTHING
- OMAGO

Gaua: DAPHNI / PIONAL / COOPER SAVER

Larunbata, azaroak 2

- JAMIROQUAI
- BRITTANY HOWARD of Alabama Shakes
- CAROLINA DURANTE
- THE DIVINE COMEDY
- MARK LANEGAN BAND
- MICHAEL KIWANUKA
- RÓISÍN MURPHY
- BANPIRO MAITALEAK (Mursego + Amorante)

Gaua: HELENA HAUFF / PEARSON SOUND / PARK HYE JIN

Eguneko sarrera: 50€ + gastuak

2 eguneko bonua: 85€ + gastuak

Salmenta: <https://www.bime.net/live/es/entradas/>